12.21.005.008A	8,0	M12	165	76	90	16,0	8,4	10	160
12.21.005.008B	8,0	M14	190	76	90	16,0	8,4	12	195
12.21.005.008C	8,0	M16	200	80	100	16,0	8,4	14	239
12.21.005.010A	10,0	M16	225	90	119	18,0	10,5	14	278
12.21.005.010B	10,0	M20	230	90	119	18,0	10,5	15	396
12.21.005.012	12,0	M20	245	105	120	20,0	12,5	17	430
12.21.005.014	14,0	M22	308	140	140	25,0	14,8	23	826
12.21.005.016	16,0	M24	363	170	170	28,0	17,0	22	1117

Irudia 3.85 - Arriostamendua lotzeko erabiliko den esparragoa


**PLAKAREN DIMENTSIONAMENDUA**

Kable eta esparrago multzoa padel estrukturalara lotzeko eta hau tenkatzeko, bere erabilerari etekin ahalik eta handiena ateratzeko. Horretarako, beharrezkoa izango da L forma duen plaka bat erabiltzea, zein zutabearen arimara lotuta joango den, eta baita azkoina eta zirrindola, altzairuzko kablea tenkatu ahal izateko.



Irudia 3.86 - Padel estalkiaren luzeetarako arriostamenduaren enlazamendua

Lotura honetarako L 100 x 12 dimentsionadun perfila, bi azkoin, M24 zirrindola bana eta aurrez aipatutako esparrago hariztatua erabiliko da. Gainera, zutabearen arimari begi txiki bat egin beharko zaio, esparragoa pasa dadin. Hona hemen loturaren dimentsio orokorrak:



Irudia 3.87 – Luzeetarako arriostremenduaren loturaren dimentsio nagusiak

1) L100x12 (S275)

– Pieza

**Cordones de soldadura**

**Disposiciones constructivas y clasificación (CTE DB SE-A 8.6.1).**

Las prescripciones que siguen serán aplicables cuando los elementos a unir tienen al menos 4 mm de espesor y son de aceros estructurales soldables.

**Resistencia de cálculo de las soldaduras a tope (CTE DB SE-A 8.6.3).**


Si la soldadura es de penetración total no es necesaria ninguna comprobación. La resistencia de cálculo será igual a la de la más débil de las piezas unidas.

Comprobaciones geométricas								
Ref.	Tipo			Preparación de bordes (mm)	l (mm)			
Soldaduras a tope del angular a la pieza	A tope en bisel simple			11	100			
<i>l: Longitud efectiva</i>								
Comprobación de resistencia								
Ref.	Tensión de Von Mises				Tensión normal		f <sub>w</sub> (N/mm <sup>2</sup> )	β <sub>w</sub>
	σ <sub>t</sub> (N/mm <sup>2</sup> )	τ <sub>t</sub> (N/mm <sup>2</sup> )	τ <sub>  </sub> (N/mm <sup>2</sup> )	Valor (N/mm <sup>2</sup> )	Aprov. (%)	σ <sub>t</sub> (N/mm <sup>2</sup> )		
Soldaduras a tope del angular a la pieza	La comprobación no procede.						410.0	0.85

**3.3.6.1 ALBOETARAKO ARRIOSTRAMENDUAK**


Alboetarako arriostremenduak lotura ezberdina izango dute, izan ere, ezin delako hegaletan zulo bat egin arriostremenduko barra pasaratzen usteko. Hortaz, tiranteak zutabeetara finkatuko dira diseinaturiko burdineria batekin. Baita, tiranteak mutur bakoitzean urkila soldatuko terminazioa izango du tirantearen eta zutabearen burdineriaren arteko lotura egiteko. Gainera, kablea tinkatzeko urkila baten muturrean tentsore bat kokatuko da, hurrengo irudiak erakusten duen moduan.





Irudia 3.88 - Alboetarako arriostremenduaren terminalak


Hona hemen tenkagailua eta urkila soldatuaren dimentsio orokorrak:



Irudia 3.89 - Urkilaren eta tentsorearen dimentsio orokorrak


**PLAKAREN DIMENSIONAMENDUA**

Kablearen, urkilaren eta tentsorearen multzoa zutabera lotzeko, beharrezkoa da zutabera soldatuta joango den xafla. Xafla honek gutxieneko lodiera bat izan beharko du kableak eragindako tentsioei eusteko gai izan dadin. Horretarako, "Cables Estructurales"-ek 16 mm-ko kableak izan behar duen finkatze puntuaren lehen iterazioa du. Datu horiek izanda, plaka diseinatuko da, padelaren eraikinaren alboko arriostremendua guztietarako berdina izango dena.



Irudia 3.90 - Finkatze puntuaren dimentsionaketaren lehenengo iterazioa.

Multzo honen lotura ez da dimentsionatuko; izan ere, “Cables Estructurales” proposatzen duen lehenengo iterazioarekin aski da, honek lotura iraungo duela baieztatzeko gai baita. Beste alde batetik, piezaren eta zutabearen arteko lotura ez da dimentsionatuko, honek arazo barik irautea aurreikusten baita.



Irudia 3.91 – Alboetako arriostamenduaren finkapenaren diseinua

### 3.3.7 SANEAMENDUA

Padeleko saneamendu sistemak euri uren hustuketa bakarrik hartuko du kontuan, ez baita ur hornidurarako punturik ezta ur hondakinik sortuko.

Hori dela eta, EKTko Osasungarritasuneko (DB - HS) dokumentuko “5. atala Ur-hustuketa” ataleko “4.2 Euri-uren hustuketarako sarearen dimentsionaketa” erabiliko da, saneamendu sistema guztia dimentsionatzeko.

Hasteko, zenbat hustubide jarri behar diren ikusiko da. Horretarako 4.2.1 puntuko “4.6 taula Hustubide zenbatekoa estalkiaren azaleraren arabera (Taula 3.75)” erabiliko da.

Taula 3.37 - Hustubide kopurura estalkiaren azaleraren arabera

Superficie de cubierta en proyección horizontal (m <sup>2</sup> )	Número de sumideros
S < 100	2
100 ≤ S < 200	3
200 ≤ S < 500	4
S > 500	1 cada 150 m <sup>2</sup>

$$n_{hustubide} = \frac{1}{150} \cdot (24'05 \cdot 22) = 3'53 \text{ hustubide}$$

Sistema simetrikoa izan dadin, 4 hustubide jarriko dira, 2 portikoaren alde baten eta beste biak portikoaren beste aldean, Irudia 3.185-an ikusi daitekeen bezala.

Gero, erretenaren diametro nominala aukeratu da. EKTko taulan agertzen diren dimentsioak 100 mm/h ko erregimen plubiometrikorako dira. Artziniegako zonaldean erregimena handiagoa da, “B eranskina. Intentsitate plubiometria lorpena” eranskineko B.1 irudiak (Irudia 3.184) erakusten duenez.



Irudia 3.92 - Isohietak eta zona plubiometrikoen mapa

Taula 3.38 - Intentsitate plubiometrikoa (mm/h)


<b>Isoyeta</b>	10	20	30	40	50	60	70	80	90	100	110	120
<b>Zona A</b>	30	65	90	125	155	180	210	240	275	300	330	365
<b>Zona B</b>	30	50	70	90	110	135	150	170	195	220	240	265

### 3.3.7.1 ERRETENEN DIMENTSIONAMENDUA

Hori dela eta, B eranskineko B taulatik (Taula 3.76) lortutako intentsitate plubiometriakoa zati 100 egingo da, f faktorea lortzeko. Faktore hori azalergatik biderkatuko egingo da, "4.2.2 Erretenak" puntuaren 2. puntuaren arabera. Gainera, 8 hustubide daudenez, erreten bakoitzak hartuko duen azalera atera dezakegu.

$$f = \frac{125}{100} = 1'25$$

$$A_{erreten\ bakoitza} = 1'25 \cdot \frac{24'05m}{2} \cdot (5'5m + 5'5m) = 165'35\ m^2/hustubide$$



Irudia 3.93 - Erreten batek hartuko duen euriaren azalera

Taula 3.39 - Erretenaren diametro minimoa 100 mm/h erregimen plubiometrikoarekin

Máxima superficie de cubierta en proyección horizontal (m <sup>2</sup> )				Diámetro nominal del canalón (mm)
Pendiente del canalón				
0.5 %	1 %	2 %	4 %	
35	45	65	95	100
60	80	115	165	125
90	125	175	255	150
185	260	370	520	200
335	475	670	930	250

Beraz, erretenek %2-ko malda izango dute eta 150 mm-ko diametroa izango dute. Hauek guztiak 4 hustubideetara ailegatuko dira eta portikoen zutabeetatik lurperatu egingo dira.


### 3.3.7.2 HUSTUBIDEEN DIMENTSIONAMENDUA

Hustubideek erretenen euri kantitate berdina izango dute, izan ere, hustubide bakoitzak hartzen duen estalkiaren azalera, erretenaren berdintsua izan behar delako. Hala ere, hustubideak guztiz bertikalak dira, hortaz, euria azkarrago pasaraztea eragiten dute, haien diametroa txikitu daitekeelarik.

Taula 3.40 - Hustubideen diametro minimoa 100 mm/h erregimen plubiometrikoarekin

Superficie en proyección horizontal servida (m <sup>2</sup> )	Diámetro nominal de la bajante (mm)
65	50
113	63
177	75
318	90
580	110
805	125
1.544	160
2.700	200


Hortaz, padel estalkian kokatuta egongo diren 4 hustubideen diametroa 75 mm-ko diametroa izango da. Kontuan hartu behar da hustubideak ez daudela portikoen zutabeen altuerara, hortaz, hustubideak ez du ibilbide bertikala izango, portikoaren zutabera lotuko delako.



Irudia 3.94 - Padel estalkiaren hustubideen kokapena

### 3.3.7.3 KOLEKTOREEN DIMENTSIONAMENDUA

Behin hustubideak lurperatu direnean, haien artean konektatuko dira, geroago guztia sare nagusira eramateko.



Irudia 3.95 - Kolektoreen eta erregistro kutxatilen kokapena

Kolektore eta erregistro kutxatila guztiak berdintsuak izango dira, beraz, Jolastokiaren azalera guztiarekin dimentsionatuko dira:

$$A_{kolektore} = 1'25 \cdot (24'05 \cdot 22) = 661'4 \text{ m}^2$$

Taula 3.41 - Kolektoreen diametro minimoa 100 mm/h erregimen plubiometrikoarekin

	Superficie proyectada (m <sup>2</sup> ) Pendiente del colector		Diámetro nominal del colector (mm)
	1 %	2 %	
	125	178	90
	229	323	110
	310	440	125
	614	862	160
	1.070	1.510	200
	1.920	2.710	250
	2.016	4.589	315

Beraz, kolektoreen diametroa 160 mm-takoa izango da, %2-ko maldarekin.



### 3.3.8 ARGIZTAPENA

Padel egiturak ez du argi-hornidurarik izango barruan hainbat arrazoiengatik. Zehaztu beharra dago proiektu honetan estalki bat egin nahi dela padeleko bi kantxa bakarrik jartzeko. Padel pistaren barne diseinua ez da lan honen fokoa, beraz, hau ez da kontuan hartuko.

Behin hau argitu ondoren, eremuari argi artifizialik ez emateko arrazoi nagusia padeleko eremuek argiak berezko argipena dakartela da. Izan ere, hauek behar bezala argiztatuak egon behar dira, baina ez da beharrezko bestelako argi-iturririk instalatze.



Irudia 3.96 - Padel pistaren diseinuan kokaturiko argiztapena

Aukeratutako estalki mota ere aipatu behar da: Danpal eredu zeharrargitsua da, eta horrek esan nahi du argi naturala barrura pasatzen uzten duela egunez, argi artifizialik behar izan gabe, energia aurreztuz eta erabiltzaileei esperientzia hobea eskainiz.

Nabarmendu beharreko beste puntu garrantzitsu bat da erabiltzaileek eremuaren gainean proiektatutako argi iturri bat izateak eragingo lukeen zeharkako argia. Horrek erreflexu asko eragingo lituzke, eta ikuspena eta jokoaren garapena okertuko luke.

## 3.4 JOLASTOKIAREN ESTALKIAREN KALKULUA

Atal honetan, padel estalkia osatzen duten elementu guztien dimentsionaketa eta kalkulua egingo da, hau da, eraikuntza guztian zehar agertuko diren elementu guztiak diseinatu eta karga erresistentea aztertuko da. Hala ere, ez dira konbinazio indar guztien kasuak agertuko, bakarrik 3.2.3.1 atalean konkretatutako karga kasuak.


### 3.4.1 ESTALKIA

Aipatu den moduan, jolastokiaren eraikuntza estaltzeko erabiliko den estalkia “PalPlastic” enpresak ekoizten dituen “Danpalon 16/900” estalkia erabiliko da. Hain zuzen ere, “Danpalon 16/900 - 3 celdillas – Hielo Softlite” (Irudia 3.2).

#### DANPALON 16/900


Taula 3.42 - Danpalon 16-900 estalkiaren ezaugarri orokorrak

DANPALON 16 mm	
Longitud / Length	MAX. 13500mm
Ancho/ Wide	900 mm
Peso / Weight	2,83 kg/m <sup>2</sup>
Espesor / Thickness	16 mm
Estructura / Structure	Multicell 4 paredes / 4 walls
Radio mín. curvado frío / Min. cold bending radius	3.100 mm
Colores standard/ Standard Colours	INCOLORO/ HIELO/OPAL * CLEAR / ICE / OPAL *
Transmisión luz / Light Transmission	71% / 60% / 35 %
Factor solar / Solar Factor	0,61 / 0,57 / 0,42
Protección U.V. / U.V. Protection	Si / Yes
Dilatación lineal / Linear expansion	0,065 mm/°Cm
Aislamiento térmico / Thermal isolation (K)	2,10 W/m <sup>2</sup> °C
Aislamiento acústico / Acoustic isolation	24 dB
Clasificación reacción fuego / Fire Reaction Classification Standard EN 13501	BS1D0
Garantía / Warranty	10 años limitada / 10 years limited



DANPALON 16-900 mm

Bestalde, polikarbonatozko xaflak haien artean kokatzeko eta petraletara finkatzeko Danpaleko “SeamLess” sistema aplikatuko da, non petralen arteko distantzia ez den oso handia, estalkiaren kanpoaldeko aldea jarraitua da, elementurik gabe,




Irudia 3.97 - DaNpe enpresaren "SeamLess" sistema

“Danpal” enpresak bahoen distantziak ezartzeko taulak ere eskuratzen ditu, karga konstante batekin petralen arteko distantzia maximoak ezartzen ditu.

Taula 3.43 - Danpalon 16-900 estalkiaren petralen arteko distantzia SeamLess Sistemarekin  
(4 kN/m<sup>2</sup>)

SPAN TABLE				
Connector	Danpalon® Panel			
	10mm	12mm	16mm	3D Lite
Expansion (DPAEC50)	3000	2700	2500	3000
50mm (DPAC50)	3600	3200	3100	3600
60mm (DPAC60)	4200	3700	3600	4200
70mm (DPAC70)	4700	4100	4000	4700
80mm (DPAC80)	5200	4600	4450	5200
100mm (DPAC100)	6300	5500	5300	6300
150mm (DPAC150)	9000	7600	7300	9000


Geroago ikusiko den moduan, polikarbonatozko xaflak haien artean elkartzeko 50 mm-tako barrak erabiliko dira (Irudia 3.98 - DPAC50 barraren sekzioa).



Irudia 3.98 - DPAC50 barraren sekzioa


### 3.4.1.1 INDARRAK

Jolastokiaren estalkiaren gainean agertzen diren indar guztiak bitan banatuko dira, alde batetik, estalkiaren norabide paraleloan eragiten dituztenak eta bestetik norabide perpendikularrean. Gainera, proiektzio horizontalean aplikatzen diren indarrak ere, estalkiaren formara egokitu behar dira:



Irudia 3.99 - Indarren bihurtzea estalkiarekiko paralelo eta perpendikularki

Jolastokiaren estalkiaren forma kurbadunagatik, petral bakoitzean agertuko den indar perpendikularra eta paraleloa ezberdinak izango dira, petral bakoitzak malda desberdina duelako. Gainera, "Irudia 3.24" irudiak erakusten duen bezala, teilatuko altuera maximoan dagoen petralak indar handiagoa jasango du, alboetara dagoena baino, hala ere, alboetarago dagoen petrala konponente paralelo eta perpendikularra izango du, petralaren inertzia txikiko norabidean indar maximoena aplikatuz.



Irudia 3.100 - Malda desberdinetako petralak jasaten duten indarra

Estalkiaren kalkuluetarako bi kasu aztertzea erabaki da:

1. Alde batetik, malda nulu bezala aztertzea erabaki da, izan ere, agertzen diren indar bertikalak maximoenak izango direlako, indarra deskonposatzean indar perpendikularra bakarrik baitago.
2. Beste aldetik, malda maximoa denean aztertzea erabaki da ( $m = 46'52^\circ$ ), izan ere, indarren osagai perpendikularrak txikiagoak izango direlako, baina goranzko haizearen eraginagatik estalkia hurrupatzera kalkulatu beharko da.

**BEREZKO PISUA**

3.2.1.2 atalean ikusi den bezala, berezko pisuaren indarra fabrikatzaileak gomendatzen zuen arabera finkatu da:

$$q_{estalki, Danpalon} = 5 \text{ kg/m}^2 = 0'05 \text{ kN/m}^2$$

Berezko pisuaren karga, osagai paralelo eta perpendikularretan banatu beharko da, bai malda nulua denean, bai malda maximoa denean:

1	$q_{estalki,1}^{\perp} = 0'05 \text{ kN/m}^2 \cdot \cos 0^{\circ} \rightarrow q_{estalki,1}^{\perp} = 0'05 \text{ kN/m}^2$ $q_{estalki,1}^{\parallel} = 0'05 \text{ kN/m}^2 \cdot \sin 0^{\circ} \rightarrow q_{estalki,1}^{\parallel} = 0 \text{ kN/m}^2$
2	$q_{estalki,2}^{\perp} = 0'05 \text{ kN/m}^2 \cdot \cos 46'52^{\circ} \rightarrow q_{estalki,2}^{\perp} = 0'034 \text{ kN/m}^2$ $q_{estalki,2}^{\parallel} = 0'05 \text{ kN/m}^2 \cdot \sin 46'52^{\circ} \rightarrow q_{estalki,2}^{\parallel} = 0'036 \text{ kN/m}^2$

**ERABILERAREN GAIKARGA**

Erabilerearen gairik proiektzio horizontalean denez, lehenengoz estalkirean gainean proiektatu beharko da:

$$q_{erab, proiekt.horiz} = 0'4 \text{ kN/m}^2$$

Berrito ere, estalkiarene malda bi egoeratan aztertu behar denez, osagai perpendikularra eta paraleloa kalkulatu behar da:

1	$q_{erabil,1}^{\perp} = 0'4 \text{ kN/m}^2 \cdot \cos 0^{\circ} \cdot \cos 0^{\circ} \rightarrow q_{erabil,1}^{\perp} = 0'4 \text{ kN/m}^2$ $q_{erabil,1}^{\parallel} = 0'4 \text{ kN/m}^2 \cdot \cos 0^{\circ} \cdot \sin 0^{\circ} \rightarrow q_{erabil,1}^{\parallel} = 0 \text{ kN/m}^2$
2	$q_{erabil,2}^{\perp} = 0'4 \text{ kN/m}^2 \cdot \cos 46'52^{\circ} \cdot \cos 46'52^{\circ} \rightarrow q_{erabil,2}^{\perp} = 0'189 \text{ kN/m}^2$ $q_{erabil,2}^{\parallel} = 0'4 \text{ kN/m}^2 \cdot \cos 46'52^{\circ} \cdot \sin 46'52^{\circ} \rightarrow q_{erabil,2}^{\parallel} = 0'199 \text{ kN/m}^2$

**ELURRA**

Elurraren indarra proiektzio horizontalean denez, lehenengoz estalkirean gainean proiektatu beharko da:

$$q_{elur, proiekt.horiz} = 0'5 \text{ kN/m}^2$$

Berrito ere, estalkia 46'52° malda duenez, elurraren indarra bere osagai paralelo eta elkartutean banatuko da:

1	$q_{elurra,1}^{\perp} = 0'5 \text{ kN/m}^2 \cdot \cos 0^{\circ} \cdot \cos 0^{\circ} \rightarrow q_{elurra,1}^{\perp} = 0'5 \text{ kN/m}^2$ $q_{elurra,1}^{\parallel} = 0'5 \text{ kN/m}^2 \cdot \cos 0^{\circ} \cdot \sin 0^{\circ} \rightarrow q_{elurra,1}^{\parallel} = 0 \text{ kN/m}^2$
---	---

$$2 \quad \left. \begin{aligned} q_{elurra,2}^{\perp} &= 0'5 \text{ kN/m}^2 \cdot \cos 46'52^{\circ} \cdot \cos 46'52^{\circ} \rightarrow q_{elurra,2}^{\perp} = 0'236 \text{ kN/m}^2 \\ q_{elurra,2}^{\parallel} &= 0'5 \text{ kN/m}^2 \cdot \cos 46'52^{\circ} \cdot \sin 46'52^{\circ} \rightarrow q_{elurra,2}^{\parallel} = 0'249 \text{ kN/m}^2 \end{aligned} \right\}$$

### HAIZEA

Haizeak gainazalarekiko elkartzut jotzen du beti, hortaz, haizearen kasuan bakarrik indar perpendikularra agertuko da eta paraleloa nulua izango da. Gainera, haizeak bi norabide izan dezake, izan ere, gora (xurruptatu) edo behera (presioa) izan daitekeelako.

Taula 3.44 - Jolastokiaren estalkiaren gaineko haizearen indarrak

ZONALDEA	NORABIDEA	KARGAREN BALIOA
A	BEHERA	$q_{H\downarrow}^A = 1'272 \text{ kN/m}^2$
	GORA	$q_{H\uparrow}^A = -1'491 \text{ kN/m}^2$
B	BEHERA	$q_{H\downarrow}^B = 2'075 \text{ kN/m}^2$
	GORA	$q_{H\uparrow}^B = -2'037 \text{ kN/m}^2$
C	BEHERA	$q_{H\downarrow}^C = 1'709 \text{ kN/m}^2$
	GORA	$q_{H\uparrow}^C = -1'529 \text{ kN/m}^2$
D	BEHERA	$q_{H\downarrow}^D = 0'508 \text{ kN/m}^2$
	GORA	$q_{H\uparrow}^D = -2'184 \text{ kN/m}^2$

Ikusi daitekenez, hauek izango dira haizeak eragingo dituen indar maximoak estalkiaren gainean:

$$q_{H\downarrow}^B = 2'075 \text{ kN/m}^2$$

$$q_{H\uparrow}^D = -2'184 \text{ kN/m}^2$$



### 3.4.1.2 INDARREN KONBINAKETAK

Behin datu guztiak izanda, erabakitako estalkia baliagarria den jakiteko, azken muga egoerako hipotesi konbinazio kritikoak aztertuko dira, "Taula 3.26 - Azken Muga Egoeran aztertuko diren hipotesi konbinazioak" taulan daudenak, bereziki.

Gainera, hipotesi konbinazio bakoitza puntu desberdinetan aztertu da: beheranzko indarrak kaltegarriak direnean (1. 3. eta 4. hipotesi konbinazioak), lehenengo puntuko kargak hartuko dira kontuan (malda horizontaleko indarrak), horrela agertzen den beheranzko indar perpendikularra maximoa izango da. Bestalde, goranzko indarrak kaltegarriak direnean (2. hipotesi konbinazioa) malda maximoko puntuko indarrak aplikatuko dira, izan ere, agertzen den goranzko indar perpendikularra maximoa izango delako.

<b>1. <math>\gamma_{BP} \cdot G_{BP} + \gamma_{EG} \cdot Q_{EG}</math></b>	<b>Berezko Pisua + Erabilera</b>
$\perp \rightarrow 1'35 \cdot 0'05 + 1'5 \cdot 0'4 = 0'668 \text{ kN/m}^2$ $\parallel \rightarrow 1'35 \cdot 0'03 + 1'5 \cdot 0 = 0 \text{ kN/m}^2$	
<b>2. <math>\gamma_{BP} \cdot G_{BP} + \gamma_H \cdot Q_{H\uparrow}</math></b>	<b>Berezko Pisua + Haizea Gora</b>
$\perp \rightarrow 0'8 \cdot 0'034 + 1'5 \cdot (-2'184) = -3'249 \text{ kN/m}^2$ $\parallel \rightarrow 0'8 \cdot 0'036 + 1'5 \cdot 0 = 0'029 \text{ kN/m}^2$	
<b>3. <math>\gamma_{BP} \cdot G_{BP} + \gamma_H \cdot Q_{H\downarrow} + \gamma_E \cdot \psi_{0,E} \cdot Q_E</math></b>	<b>Berezko Pisua + Haizea Behera + Elurra</b>
$\perp \rightarrow 1'35 \cdot 0'05 + 1'5 \cdot 2'075 + 1'5 \cdot 0'5 \cdot 0'5 = 3'555 \text{ kN/m}^2$ $\parallel \rightarrow 1'35 \cdot 0 + 1'5 \cdot 0 + 1'5 \cdot 0'5 \cdot 0 = 0 \text{ kN/m}^2$	
<b>4. <math>\gamma_{BP} \cdot G_{BP} + \gamma_E \cdot Q_E + \gamma_H \cdot \psi_{0,H} \cdot Q_{H\downarrow}</math></b>	<b>Berezko Pisua + Elurra + Haizea Behera</b>
$\perp \rightarrow 1'35 \cdot 0'05 + 1'5 \cdot 0'5 + 1'5 \cdot 0'6 \cdot 2'075 = 2'685 \text{ kN/m}^2$ $\parallel \rightarrow 1'35 \cdot 0 + 1'5 \cdot 0 + 1'5 \cdot 0'6 \cdot 0 = 0 \text{ kN/m}^2$	

Hortaz, taula honetatik, estalkiaren gainean norabide perpendikularrean agertzen diren bi norabidetako (gora eta behera) indar maximoak atera ditzakegu:

$$q_{max}^{\downarrow} = 3'555 \text{ kN/m}^2 \rightarrow q_{max}^{\downarrow} = 362'4 \text{ kg/m}^2$$

$$q_{max}^{\uparrow} = -3'249 \text{ kN/m}^2 \rightarrow q_{max}^{\uparrow} = -329'25 \text{ kg/m}^2$$

### 3.4.1.3 EMAITZA

Indarrak "Danpal"-ren estalkiarekin konparatzen baldin bada (Taula 3.43), argi ikusten da petralen arteko distantzia 3'1 metrokoa izan daitekeela 4 kN metro karratuko karga batekin. Agertutako kargak txikiagoak direnez, petralen arteko distantzia 3 metrotakoa hartzea erabaki da.

$$\begin{aligned}q_{max}^{\downarrow} &= 3'555 \text{ kN/m}^2 < q_{Danpalon}^{\downarrow} = 4 \text{ kN/m}^2 \\q_{max}^{\uparrow} &= -3'249 \text{ kN/m}^2 < q_{Danpalon}^{\uparrow} = -4 \text{ kN/m}^2\end{aligned}$$

## 3.4.2 KALKULU PROGRAMA

Jolastokiaren estruktura kalkulatzeko zenbait programa erabiliko dira, bere egituratze eta funtzionamendu aproposa bermatzeko. Alde batetik, 3.4 atalean azaldutako geometria Autocad programaren bitartez definituko da, gero estrukturaren dimentsionamendurako pentsatuta dagoen programara hori eramateko, Cype 3D.

### 3.4.2.1 ESTALKIAREN GEOMETRIA

Esan bezala, geometria nagusia (Irudia 3.8 - Jolastokiaren estalkiaren kota orokorrak), Autocad programan sartua izan da, puntu eta marren bidez. Gero, fitxategia (edo artxiboa) marrazketa formatuarekin (.dxf edo .dwg) esportatua izan da, Cype 3D (estruktura programa) irakurtzeko gai izan zitezen.


### 3.4.2.2 BARREN SARRERA

Behin Cype 3D-n puntuak jarrita, kanpokoaldearekin kontaktuan dauden barra eta puntuak sartu dira. Horretarako, barrak sortzeko beharrezkoa izango den materiala hautatu da:

- Todo
- Madera de coníferas
- Madera de frondosas
- Madera laminada encolada
- Madera microlaminada (LVL)
- Tablero contrachapado
- Tablero de virutas orientadas (OSB)
- Tablero de partículas
- Tablero de fibras
- Placa de yeso laminado
- Madera (Norteamérica)
- Madera (Sudáfrica)

Irudia 3.101 - Eraikuntzetan erabiltzen diren zur mota desberdinak

Aztertzen ari den kasuan, 24 N/mm<sup>2</sup>-ko erresistentzia duen zur ijestu kolatu homoginoa erabiliko da, UNE arauak 14080: 2013-08-n ezartzen duen bezala.



Irudia 3.102 - Zur ijestu kolatu homogineoaren aukeraketa

Beraz, ikusi den bezala, jolastokiko petralentzako, zur ijestu kolatu homogineoko habe laukizuzenak erabiliko dira, honako eraikuntza motetarako emaitza onak ematen dituelako. Gainera, zuraren klase erresistentea GL24h izango da, izan ere, Euskal Herrian landatzen diren

eraikuntzetarako zuhaitzak pinudietatik ateratzen dira, klase erresistente hori dutena. Hauek dira material honen ezaugarri orokorrak:

Taula 3.45 - Zur ijertzutako kolatu homogeneoko ezaugarriak, GL24h

Propiedades		GL24h	Clase Resistente		
			GL28h	GL32h	GL36h
<b>Resistencia (característica), en N/mm<sup>2</sup></b>					
- Flexión	$f_{m,g,k}$	24	28	32	36
- Tracción paralela	$f_{t,0,g,k}$	16,5	19,5	22,5	26
- Tracción perpendicular	$f_{t,90,g,k}$	0,4	0,45	0,5	0,6
- Compresión paralela	$f_{c,0,g,k}$	24	26,5	29	31
- Compresión perpendicular	$f_{c,90,g,k}$	2,7	3,0	3,3	3,6
- Cortante	$f_{v,g,k}$	2,7	3,2	3,8	4,3
<b>Rigidez, en kN/mm<sup>2</sup></b>					
- Módulo de elasticidad paralelo medio	$E_{0,g,medio}$	11,6	12,6	13,7	14,7
- Módulo de elasticidad paralelo 5 <sup>o</sup> -percentil	$E_{0,g,k}$	9,4	10,2	11,1	11,9
- Módulo de elasticidad perpendicular medio	$E_{90,g,medio}$	0,39	0,42	0,46	0,49
- Módulo transversal medio	$G_{g,medio}$	0,72	0,78	0,85	0,91
<b>Densidad, en kg/m<sup>3</sup></b>					
Densidad característica	$\rho_{g,k}$	380	410	430	450

Zur ijertzutako kolatua lortzeko, erresistentzia mota berezi bateko oholak elkartu behar dira itsasgarri baten bidez. Horrela, zabalera bereko oholak bata bestearen gainean jarrita, kantoi handiak lor daitezke, hots, jolastokiaren egitura, adibidez. Bestalde, zur ijertzutako kolatua homogeneoa edo konbinatua izan daiteke, hau da, taula guztiak erresistentzia-mota berekoak eta berdinak (homogeneoak) edo, aldiz, mota desberdinetakoak eta alderatuak (konbinatua) izan daitezke (Taula 3.46). Kasu honetan, zur ijertzutako kolatua homogeneoa erabiliko da, geruza guztiek erresistentzia bera berdina dezaten.

Taula 3.46 - Zur ijertzutako laminatuko klase erresistente minimoa

Madera laminada encolada homogénea	Clases resistentes		
	GL24h	GL28h	GL32h
- Todas las láminas	C24	C30	C40
<b>Madera laminada encolada combinada</b>	<b>GL24c</b>	<b>GL28c</b>	<b>GL32c</b>
- Láminas externas <sup>(1)</sup>	C24	C30	C40
- Láminas internas	C18	C24	C30

Beste alde batetik, zura zerbitzu mota baterako pentsatuta egon beharko litzateke; izan ere, bere kokapenaren ingurumen baldintzek haren balio-bizitza definitu eta eragingo baitute. Artziniegako egitura honetan, bigarren motako zerbitzurako gaitasuna erabiliko da, neguko hezetan erlatibo %85 baino handiagoa izan ahal daitekeelako.

**2.2.2.2 Clases de servicio**

- 1 Cada elemento estructural considerado debe asignarse a una de las clases de servicio definidas a continuación, en función de las condiciones ambientales previstas:
  - a) clase de servicio 1. Se caracteriza por un contenido de humedad en la madera correspondiente a una temperatura de  $20 \pm 2^\circ\text{C}$  y una humedad relativa del aire que sólo exceda el 65% unas pocas semanas al año.
  - b) clase de servicio 2. Se caracteriza por un contenido de humedad en la madera correspondiente a una temperatura de  $20 \pm 2^\circ\text{C}$  y una humedad relativa del aire que sólo exceda el 85% unas pocas semanas al año.
  - c) clase de servicio 3. Condiciones ambientales que conduzcan a contenido de humedad superior al de la clase de servicio 2.

**Irudia 3.103 - Zerbitzu klase desberdinen deskripzioa**






Erabiliko den zura argitu ondoren, portikoak eta petralak jartzeko momentua heldu da. Horrez gain, gilbordurako eta alboko gilbordurako luzerak definituko dira baita ere.

**GILBORDURA**


Osagai konprimitu lerdenetan eman daitekeen fenomeno da gilbordura, zein konpresioaren norabiderako zeharkako desplazamenduak agertzen den.

Gilbordura jolastokiko petraletan, zutabeetan eta portikoetan nabaritu izango da, baina, gehienbat, portikoetan. Portikoetan gilbordura fenomeno emango da, hauek konpresioan daudenean. Hala ere, portikoak duen forma makurraren eta kargaren norabideen ondorioz, zaila da kalkulatzeko zein izango litzatekeen erabili beharreko gilborduraren luzera zuzena.

**Taula 3.47 - Gilbordura luzeraren koefizientea,  $\beta_v$**

Tipo de carga y viga	$\beta_v = L_{ef} / L$
	$\beta_v = 1,00$
	$\beta_v = 0,95$
	$\beta_v = 0,8/\alpha$ $\alpha = 1,35 - 1,4 x(L - x)/L^2$
	$\beta_v = 2,00$
	$\beta_v = 1,20$

Arco biarticulado o triarticulado de sección constante.



$l_k = \beta \cdot s$  para  $0,15 \leq h/l \leq 0,50$

siendo:

$\beta = 1,25$

(forma modal asimétrica de pandeo)

Hala ere, "Eraikigintzaren Kode Teknikoa – Egurra" dokumentuak sekzio konstanteko portiko zein petral biartikulatuetara egiten die erreferentzia, Taula 3.47-an ikus daitekeenez.

Gilbordura luzeraren koefizientea definitu ondoren, zurezko elementu guztiak haien berezko neurri eta koefizienteekin baliozkotuko dira.


Taula 3.48 - Elementu desberdinen gilbordura luzera

ELEMENTUA	LUZERA	GILBORDURA LUZERAREN KOEFIZIENTEA	GILBORDURA LUZERA
Petralak	3 m	0'95	2'85 m
Zutabeak	7 m	1'20	8'4 m
Portikoak	$30/2 = 15$ m	1'25	18'75 m

### ALBOKO GILBORDURA

Alboko gilbordura elementuaren zati bat konpresioan dagoenean gertatzen da, eta, ondorioz, elementu hori iraultzearen eta ardatzaren inguruan biratzearen joera izan dezake. Egoera hipotetiko horretan, konpresio egoeran dagoen zati horrek kolapsoa izan dezake gilbordurak eraginda. Egoera hori konpontzeko, tornapuntak erabiliko dira, alboko gilborduraren luzera eta, oro har, alboko gilbordura emateko aukerak nabarmenki murrizteko.

Portikoetan tornapuntak erabiliko dira hauek petral batekin gurutzatzen diren bakoitzean. Horrela, alboko gilborduraren luzera 3 metroraino murriztuko da, hots, petralen artean dagoen distantzia.



Irudia 3.104 - Tornapunten diagrama petral eta portikoen artean

Tornapuntak 50 x 50 mm-ko zurezko profilak izango dira. Elementu hauek ez dira dimentsionatu behar, haien helburu bakarra portikoak beren lekuan mantentzea baita, luzetarako desplazamenduak saihestuz. Petralarekiko 45°-ko angelua izango dute eta petralean finkatuko dira portikotik 330 mm-ra, Irudia 3.104-an ikus daitekeen bezala.

Hauek portiko eta petraletara finkatuko dira Anker  $\varnothing 4 \times 75$  hiltzeak erabiliz, ez baitute kargarik jasango.



### 3.4.2.3 KARGEN SARRERA

Kargak Cype "CYPE 3D" moduluan sartu dira zuzenean. Modulu horretan, barrak definitu ondoren, barrak aplikatzeko hormatalak eta gainazaleko kargak esleitu dira.

Hauek gehitu aurretik, ekintza bakoitzari iraupen mota bat atxikitu behar izan zaio, Eraikigintzaren Kode Teknikoak dioen bezala.

Taula 3.49 - Akzioen iraupen klasea


Clase de duración	Duración aproximada acumulada de la acción en valor característico	Acción
<b>Permanente</b>	más de 10 años	Permanente, peso propio
<b>Larga</b>	de 6 meses a 10 años	Apeos o estructuras provisionales no itinerantes
<b>Media</b>	de una semana a 6 meses	sobrecarga de uso; nieve en localidades de >1000 m
<b>Corta</b>	menos de una semana	viento; nieve en localidades de < 1000 m
<b>Instantánea</b>	algunos segundos	sismo

Azkenik, garrantzitsua da zehaztea gainazaleko kargak hormatalen azpian egon behar direla beti. Horrek esan nahi du, gainazaleko karga guztiak zapi bat dagoen lekuetan aplikatu beharko direla.

#### HORMATAL (PAÑOS)


Hormatalak hainbat ekintza motatako kargak sartzeko aukera ematen duten gainazalak dira, zein, gainera, kargak erabiltzaileek aurretik zehaztutako helbide batean banatu ditzaketen.

Hormatalak lauak izan behar dira, ezin dira hormatal kurboak egin. Horregatik, jolastokiaren eraikinean hormatalak jarriko dira petralaren eta petralaren artean, Irudia 3.105-an ikus daitekeen bezala.



Irudia 3.105 - Jolastokiaren hormatalen kokapena

Hormatalen norabidea zuzen zehaztea garrantzitsua da; izan ere, horren arabera kargak norabide batera edo bestera transmitituko baitira. Kasu honetan, estalkia dimentsionatu nahi diren petralaren gainean kokatzen denez eta hauek portikoekiko perpendikularrak direnez, kargak lehenbizi petraletara eta, geroago, portikoetara transmitituko dira, Irudia 3.106-an erakusten den moduan.



**Irudia 3.106 - Indarren transmisioa petraletara hormatalen norabidearen arabera**

Gainera, hormataletan erabat bertikalak diren kargak sartuko dira, hala nola estalkiaren berezko pisua, erabileraren gainkarga eta elurra. Bestalde, kontuan hartu behar da EKTren arabera, elurrak 3 ekintza mota ezberdinak izango dituela, eta ekintza horiek, lehenik, hegal batean aplikatuko direla, gero bestean, eta, azkenik, bi isurialdeetan (Irudia 3.14 - Elurraren akzioaren aplikazio grafikoa). Hauek ez dira aldi berean gertatuko; hau da, ez dira konkomitanteak izango.

Actúa	Hipótesis adicionales	Editar	Borrar
✓	N Todo		
✓	N 1 Faldon		
✓	N 2 Faldon		

Combinatoria			
Hipótesis	N Todo	N 1 Faldon	N 2 Faldon
<b>N Todo</b>		✗	✗
<b>N 1 Faldon</b>			✗
<b>N 2 Faldon</b>			

Combinables  
 No combinables

**Irudia 3.107 - Elurraren hipotesi akzio desberdinen konbinazioa**

### CARGAS SUPERFICIALES

Gainazaleko kargak ezin hobeak dira haizearen akzioa aplikatzeko, ipintzen diren hormatalearekiko era perpendikularrean aplikatzen baitira. Gainera, hormatal berean tamaina eta karga desberdineko gainazaleko kargak sartzea ahalbidetzen dute, Eraikigintzaren Kode Teknikoak ezarritako haize eremuak zehazteko aproposa dena.

Aurretik aipatu den bezala, haizearen akzioa kalkulatu da, presioan eta xurgapenean. Horrez gain, haizeak bi isurialdeen gainean duen egoera aztertuko da. Haizeak hegal bakar bati eragiten dio, eta horrek haizearen hiru akzio eragiten ditu xurgapenaren eraginez, eta beste hiru presioaren eraginez. Are gehiago, portiko hastialetan haizearen eragina ere agertzen da, bere norabidearen arabera aldatzen dena: (i) haizeak  $0^\circ$ -ra jotzen duenean eta (ii) honek  $90^\circ$ -ra jotzen duenean. Hori guztia dela era, hurrengoko haizearen akzioak hartu dira kontuan:

Actúa	Hipótesis adicionales	Editar	Borrar
✓	Haizea Behera G		
✓	Haizea Behera 1		
✓	Haizea Behera 2		
✓	Haizea Gora G		
✓	Haizea Gora 1		
✓	Haizea Gora 2		
✓	Haizea 0°		
✓	Haizea 90°		

**Irudia 3.108 - Haizearen akzioaren hipotesi desberdinen sarrera**

Elurrak ez bezala, haizearen bi akzio eman daitezke aldi berean, zeren eta portiko hastialetan aplikatzen den haizea ez baita estalkian aplikatzen denarekiko independentea. Beraz, hauek dira gerta daitekeen konbinazioak (Taula 3.50):

**Taula 3.50 - Haizearen eraginaren konbinazioak**

KONBINAZIOA	TEILATUAN						HORMETAN	
	BEHERA			GORA			0°	90°
	Guztia	1. ura	2. ura	Guztia	1. ura	2. ura		
1	x							
2		x						
3			x					
4				x				
5					x			
6						x		
7							x	
8	X						x	
9		X					x	
10			X				x	
11				X			x	
12					x		x	
13						x	x	
14								x
15	x							x
16		x						x
17			x					x
18				x				x
19					x			x
20						x		x

#### 3.4.2.4 HIPOTESI KONBINAZIOEN SARRERA

Cype 3D-ek zuzenean kalkulatu ditu azken mugako egoeraren eta sartutako ekintzetarako zerbitzuaren muga egoeraren konbinazio guztiak. Cype 3D-ek egingo dituen konbinazioak “3.2.3 INDARREN ARTEKO KONBINAKETAK” atalean azalduko dira.

Garrantzitsua da aipatzea sartutako haize eta elur akzioak ez direla aldi berean gertatzen, hau da, ezin direla bi haize-karga egon (estalkian eta horma hastialean izan ezik), ez eta aldi bereko elurra hipotesi-konbinazio batean ere.

### 3.4.2.5 KONPROBAZIOAK

Petralen, portikoen eta arriostamenduen egiaztapenak Cype 3D kalkulu programak eginen ditu. Hala ere, Cypek azken muga egoeraren konbinazioekin egiten dituen egiaztapenak azaltzen dira hemen, zeintzuk bi helburu nagusi dituzte: alde batetik, sekzioen erresistentzia balioztatzea eta, bestetik, barren erresistentzia konprobatzea. Gainera, gehieneko geziak ere baliozkotuko dira, zerbitzuaren muga egoera ez gainditzeko.

#### TENTSIOAK

- **MAKURDURA DESBIDERATUA**

$$\frac{\sigma_{m,y,d}}{f_{m,y,d}} + k_m \cdot \frac{\sigma_{m,z,d}}{f_{m,z,d}} \leq 1 \quad (14)$$

$$k_m \cdot \frac{\sigma_{m,y,d}}{f_{m,y,d}} + \frac{\sigma_{m,z,d}}{f_{m,z,d}} \leq 1 \quad (15)$$

Non,

- $\sigma_{m,y,d}$  → Y ardatzarekiko makurdurako kalkulu tentsioa den.
- $\sigma_{m,z,d}$  → Z ardatzarekiko makurdurako kalkulu tentsioa den.
- $f_{m,y,d}$  → Y ardatzarekiko zur ijestu kolatuaren erresistentzia makurdurarekiko den.
- $f_{m,z,d}$  → Z ardatzarekiko zur ijestu kolatuaren erresistentzia makurdurarekiko den.
- $k_m$  → Zeharkako sekzioan tentsio banaketaren eta materialaren homogeneousutasun ezaren eragina kontuan hartzen duen faktorea den.

Aukeratutako zur ijestu kolatuaren erresistentzia balioetik kalkulu balioa aterako da, izan ere, Cypek egingo dituen kalkulu guztiak balio honekin egingo direlako. Kalkulu balio berri hau erabiliko da sekzioa onargarria den edo ez aztertzeko.

$$f_{m,y,d} = k_{mod} \cdot \frac{f_{m,g,k} \cdot k_h}{\gamma_M} \quad (16)$$

Non,

- $f_{m,y,d}$  → Makurdurarekiko kalkulu erresistentzia balioa den.
- $f_{m,g,k}$  → Makurdurarekiko erresistentzia bereizgarriaren balioa den (Taula 3.45).
- $k_{mod}$  → Modifikatzaile faktorea, karga-konbinazioen iraupen motaren eta zerbitzu motaren arabera dena (Taula 3.53).
- $k_h$  → Erresistentziaren korrekzio faktorea dena (Taula 3.51).
- $\gamma_M$  → Segurtasun koefiziente partziala dena (Taula 3.52).

Jolastokiaren eraikinaren kasuan zur ijestu kolatuko GL24h klase erresistentea erabiliko denez, honako hau lortzen da:

$$f_{m,g,k} = 24 \text{ N/mm}^2$$

Hala ere, elementuak duen hegalararen altueragatik faktore batengatik biderkatu daiteke haren erresistentzia handitzeko:

Taula 3.51 - Korrekzio faktorea hegalararen altueragatik,  $k_h$

Factor	Aplicación				
de altura	Madera aserrada: canto (mm)	<40	70	100	≥150
	Factor $k_h$ de corrección de $f_{m,k}$ y $f_{t,0,k}$	1,3	1,2	1,1	1,0
	Madera laminada: canto (mm)	<240	300	400	≥600
	Factor $k_h$ corrector de $f_{m,g,k}$ y $f_{t,0,g,k}$	1,10	1,07	1,04	1,00
de volumen	Madera laminada : volumen de la zona afectada (m³)	<0,010	0,015	0,020	0,030
	Factor $k_{vol}$ corrector de $f_{t,90,g,k}$	1,00	0,92	0,87	0,80

Taula 3.52 - Segurtasun koefiziente partziala,  $\gamma_M$

Situaciones persistentes y transitorias:

- Madera maciza	1,30
- Madera laminada encolada	1,25
- Madera microlaminada, tablero contrachapado, tablero de virutas orientadas	1,20
- Tablero de partículas y tableros de fibras (duros, medios, densidad media, blandos)	1,30
- Uniones	1,30
- Placas clavo	1,25

Taula 3.53 - Modifikatzaile faktorea,  $k_{mod}$

Material	Norma	Clase de servicio	Clase de duración de la carga				
			Permanente	Larga	Media	Corta	Instantánea
Madera maciza	UNE-EN 14081-1:2016	1	0,60	0,70	0,80	0,90	1,10
		2	0,60	0,70	0,80	0,90	1,10
		3	0,50	0,55	0,65	0,70	0,90
Madera laminada encolada	UNE-EN 14080:2013	1	0,60	0,70	0,80	0,90	1,10
		2	0,60	0,70	0,80	0,90	1,10
		3	0,50	0,55	0,65	0,70	0,90
Madera microlaminada	UNE-EN 14374:2005,	1	0,60	0,70	0,80	0,90	1,10
	UNE-EN 14279:2007+A1:2009	2	0,60	0,70	0,80	0,90	1,10
		3	0,50	0,55	0,65	0,70	0,90

Beraz, 16. ekuazioa aplikatuz, zur ijestu kolatuaren kalkulu erresistentzia atera daiteke:

$$f_{m,y,d} = 0'9 \cdot \frac{24 \text{ MPa} \cdot 1'07}{1'25} = 18'49 \text{ MPa}$$

Behin zuraren makurdurarekiko erresistentzia definituta egonda, elementuetan agertzen den momentuaren kalkulua egingo da.

$$\sigma_{m,y,d} = \frac{M_y \cdot h/2}{I_y} \tag{17}$$

$$\sigma_{m,z,d} = \frac{M_z \cdot b/2}{I_z} \tag{18}$$

Non,

- $M_y$  eta  $M_z \rightarrow$  Y eta Z ardatzetako esfortzu makurtzaile maximoak.
- $I_y$  eta  $I_z \rightarrow$  Y eta Z ardatzetako inertzia momentuak diren.
- $h \rightarrow$  Elementuaren sekzioaren altuera (hegala).
- $b \rightarrow$  Elementuaren sekzioaren zabalera.



Eragindako tentsioak elementuaren sekzioaren eta bere gaineko kargen arabera egongo da definituta, geroago, sekzioaren onargarritasuna frogatzeko.


• **EBAKITZAILEA**

$$\tau_{xy} = \frac{3}{2} \cdot \frac{V_y}{A \cdot k_{cr}} \leq f_{v,d} \quad (19)$$

$$\tau_{xz} = \frac{3}{2} \cdot \frac{V_z}{A \cdot k_{cr}} \leq f_{v,d} \quad (20)$$

Non,

- $\tau_{xy}$  eta  $\tau_{xz}$  → Ebakitzailleko kalkulu tentsioa XY eta XZ planoekiko.
- $A$  → Elementuaren sekzioaren azalera den.
- $V_y$  eta  $V_z$  → Y eta Z ardatzetako esfortzu ebakitzailleak diren.
- $k_{cr}$  → Piezaren zabalera eraginkorra den (Taula 3.54).
- $f_{v,d}$  → Zur ijertzutako kolatuaren erresistentzia ebakitzaille paraleloarekiko den.



Irudia 3.109 - Tentsio ebakitzailleak. a) ebakidura paraleloan. b) ijeketa

Momentu makurtzailearen kalkuluan egin den bezala, zuraren elementuaren erresistentzia indar ebakitzaillearen aurka kalkulatu beharko da:

$$f_{v,d} = k_{mod} \cdot \frac{f_{v,g,k}}{\gamma_M} \quad (21)$$

Non,

- $f_{v,d}$  → Indar ebakitzaillearekiko kalkulu erresistentzia balioa den.
- $f_{m,g,k}$  → Ebakitzaillearekiko erresistentzia bereizgarriaren balioa den (Taula 3.45).
- $k_{mod}$  → Modifikatzaile faktorea, karga-konbinazioen iraupen motaren eta zerbitzu motaren arabera dena (Taula 3.53).
- $\gamma_M$  → Segurtasun koefiziente partziala dena (Taula 3.52).

$$f_{m,y,d} = 0'9 \cdot \frac{2'7 \text{ MPa}}{1'25} = 1'944 \text{ MPa}$$

Beraz, agertzen diren tentsio ebakitzaila guztiak 1'944 MPa baino txikiago izan beharko dira balioztatzeko.

Bestalde, zuraren barnealdean egon daitezkeen bendengatik, korrekzio faktore batengatik biderkatu beharko da azalera, izan ere, sekzio guztia ez duelako esfortzu ebakitzaila jasaten.

Taula 3.54 - Elementuaren zabalerarako korrekzio faktorea,  $k_{cr}$

$k_{cr} = 0,67$	para la madera maciza
$k_{cr} = 0,67$	para la madera laminada encolada
$k_{cr} = 1,0$	para otros productos derivados de la madera de acuerdo con las normas UNE-EN 13986:2006+A1:2015 y UNE-EN 14374:2005.

### ALBOKO GILBORDURA

Alboko gilbordura egiaztatzeko, lehenik eta behin, lerdentasun erlatiboa kalkulatu beharko da, izan ere, EKT-ak esaten duen bezala, lerdentasun erlatiboa 0'75 baino txikiago bada, ez da beharrezkoa izango alboko gilbordura konprobatzea.

Taula 3.55 - Alboko gilborduraren aplikazioa lerdentasun erlatiboaren arabera

#### 6.3.3.3 Comprobación de piezas de directriz recta y sección constante

- 1 La comprobación a vuelco lateral no será necesaria en vigas que cumplan la condición

$$\lambda_{rel,m} \leq 0,75$$

- 2 Vuelco lateral en flexión simple.

Debe cumplirse la siguiente condición:

$$\sigma_{m,d} \leq k_{crit} \cdot f_{m,d} \quad (6.40)$$

siendo:

$\sigma_{m,d}$  tensión de cálculo a flexión;

$f_{m,d}$  resistencia de cálculo a flexión;

$k_{crit}$  coeficiente de vuelco lateral, obtenido a partir de las expresiones siguientes:

$$k_{crit} = 1,56 - 0,75\lambda_{rel,m} \quad \text{para } 0,75 < \lambda_{rel,m} \leq 1,4 \quad (6.41)$$

$$k_{crit} = 1/\lambda_{rel,m}^2 \quad \text{para } 1,4 < \lambda_{rel,m}$$

#### • LERDENTASUN ERLATIBOIA

$$\lambda_{rel,m} = \sqrt{\frac{f_{m,k} \cdot W_{y,el}}{M_{y,crit}}} \quad (22)$$

Non,

- $\lambda_{rel,m}$  → Albo gilbordurako lerdentasun erlatiboa dena.
- $f_{m,k}$  → Makurdurarekiko erresistentzia karakteristiko.
- $W_{el}$  → Sekzioaren modulu erresistente elastikoa.
- $M_{crit}$  → Momentu kritiko elastikoa dena.

$$M_{crit,y} = \frac{\pi \cdot \sqrt{E_{0,k} \cdot I_z \cdot G_{0,k} \cdot I_{tor}}}{L_{ef}} \quad (23)$$

Non,

- $M_{crit}$  → Momentu kritiko elastikoa dena.
- $E_{0,k}$  → Luzetarako modulu elastiko karakteristikoa dena.
- $G_{0,k}$  → Zeharkako modulu elastiko karakteristikoa dena.
- $I_z$  → Ardatz ahularekiko inertzia momentua dena.
- $I_{tor}$  → Tortsio modulua dena.
- $L_{ef}$  → Elementuaren alboko iraultetaren luzera eraginkorra den.

$$L_{ef} = \beta_v \cdot L \quad (24)$$

Non,

- $L_{ef}$  → Elementuaren alboko iraultetaren luzera eraginkorra den.
- $\beta_v$  → Karga baldintzen eta muturren arabera koefizientea dena (Taula 3.47).
- $L$  → Elementuaren luzera den.

EKTko DB - SE - M dokumentuko “6.3.3.3 Sekzio konstanteko eta zuntz zuzeneko piezen konprobaketa” ataleko 1. puntuaren arabera, lerdentasun erlatiboaren balioa 0’75 baino txikiago bada, ez da beharrezko alboko iraultetaren egiaztapena egitea.

### GEZIA

Zerbitzu Muga Egoeren ondorioz elementuetan agertzen den gezia onargarria izateko (12) formula erabiliko da. Kontuan hartu beharko da, kalkulu programak kalkulatu dituen desplazamenduak bi norabidetan izango direla, hortaz, kontuan hartu beharko da:

$$\delta_T = \sqrt{\delta_{//}^2 + \delta_{\perp}^2} \quad (25)$$

Non,

- $\delta_T$  → Elementuaren gezi maximoa
- $\delta_{//}$  → Elementuaren gezi maximoa norabide paraleloan
- $\delta_{\perp}$  → Elementuaren gezi maximoa norabide perpendikularrean.

Eraikigintzaren Kode Teknikoko DB - SE - M dokumentuko 7. atalean, zur elementuetan zerbitzu muga egoeren aplikazioaren azalpena dator. Hortxe, azterketa puntuaren arabera deformazio atzeratua kalkulatu behar da:

$$\delta_{dif} = \delta_{ini} \cdot \Psi_2 \cdot k_{def} \quad (26)$$

Non,

- $\delta_{dif}$  → Elementuaren deformazio atzeratua.
- $\delta_{ini}$  → Elementuaren desplazamendu elastikoa.
- $\Psi_2$  → Aldiberekotasun koefizientea dena (Taula 3.25).
- $k_{def}$  → Fluentzia faktorea den, zerbitzu klasearen menpe dagoena.

Taula 3.56 - Fluentzia faktorea,  $k_{def}$ 

Material	Tipo de producto	Clase de servicio		
		1	2	3
Madera maciza		0,60	0,80	2,00
Madera laminada encolada		0,60	0,80	2,00
Madera microlaminada (LVL)		0,60	0,80	2,00
Tablero contrachapado	UNE-EN			
	636:2012+A1:2015			
	Parte 1	0,80	-	-
	Parte 2	0,80	1,00	-
Tablero de virutas orientadas (OSB)	UNE-EN 300:2007			
	OSB/2	2,25	-	-
	OSB/3, OSB/4	1,50	2,25	-
Tablero de partículas	UNE-EN 312:2010			
	Parte 4	2,25	-	-
	Parte 5	2,25	3,00	-
	Parte 6	1,5	-	-
	Parte 7	1,50	2,25	-

### SUTEAREN AURKAKO ERRESISTENTZIA

Proiektu honetako jolastokiaren egitura zurezkoa da. Eraikigintzaren Kode Teknikoko “Suteen Aurkako Segurtasuneko Oinarrizko Dokumentua (DB - SI)” jarraituz, zurezko elementu bakoitzaren kalkulu erresistenteak egingo dira. Erabiliko den metodoa txikitutako azaleraren metodoa izango da.

#### • TXIKITUTAKO AZALERAREN METODOA

Zurezko eraikuntza batean sua agertzen bada, elementuen azalera txikituz joango da, izan ere, erabilgarria den azalera txikiago bihurtzen delako, barraren inertzia ere txikituz. Hasteko, elementuko sekzioaren azalera ikaztutako sakontasun eraginkorra kendu behar zaio agerian dauden aldeei, formula hau kontuan izanik:

$$d_{ef} = d_{char,n} + k_0 \cdot d_0 \quad (27)$$

Non,

- $d_{ef}$  → Ikaztutako sakontasun eraginkorra den.
- $d_{char,n}$  → Ikaztutako sakontasun izendatua den.
- $k_0$  → Unitateko balioa hartzen duena 20 minutu edo gehiagoko t denboretarako.
- $d_0$  → 7 mm-ko balioa hartzen duena.



Hau guztia jakinda, ikaztutako sakontasun eraginkorra kalkulatu daiteke elementu guztientzako. Komentatu denez, jolastokiaren eraikina 30 minutuko sutea eutsi beharko du, hortaz:

$$d_{char,n} = \beta_n \cdot t = 0'7 \cdot 30 = 21 \text{ mm}$$

$$d_{ef} = d_{char,n} + k_0 \cdot d_0 = 21 + 1 \cdot 7 = 28 \text{ mm}$$

Hori dela eta, egitura osatzen duten zurezko elementu guztiei 28 mm kendu beharko zaie suak erre duen alde bakoitzeko. Kasu honetan, segurtasunaren aldetik aztertzeke, elementu guztien sekzioa laburtu egingo da, suak elementuaren alde guztietatik eraso egingo balu bezala.

Taula 3.58 – Txikitutako azaleraren metodoarekin ateratako ikaztutako sekzioa

ELEMENTUA	SEKZIOA (mm)	IKAZTUTAKO SAKONERA (mm)	IKAZTU GABEKO SEKZIOA
Petralak	180 X 300	28	124 x 244
Zutabeak	260 x 520	28	204 x 464
Portikoak	260 X 660	28	204 x 604


Padel eraikinean bezala, Cype 3D-ri 30 minutuko uraldia esleituko zaio, eta hark beharrezko kalkuluak egingo ditu egiturak neurri egokiak izan ditzan.



### 3.4.3 TEILATUKO PETRALAK

Estalkiari eta horren gainean agertuko diren indar guztiak eusteko erabiltzen diren habeak dira. Hauek portikoekiko norabide perpendikularrean jartzen dira, luzetarako norabidean. Haien helburu nagusia eraikinean agertzen diren akzioak portikoetara transmititzea da. Petralen dimentsionaketa, Cype programarekin egingo da, aurrerago azalduko den bezala.

Zurezko petralak, altzairuzkoak ez bezala, portikoen artean kokatzen dira, barra biartikulatu bat izango balitz bezala, hau da, barrak ez dira jarraituak. Hori dela eta, kalkuluak egiteko petralen luzera 5 metrokoa hartuko da, hau da, portikoen arteko distantzia.



Irudia 3.111 - Petralen dispozizioa portikoen artean

Petralak Cype 3D softwarea erabiliz dimentsionatuko dira, 3.4.2 atalean azaldu den bezala. Indarrak hormatalen gainazaleko karga gisa sartu ondoren, karga guztia petralen artean banatuko da. Horrela, portikoek ez dute estalkitik inolako indarririk jasotzen; hau da, karga guztiak petralen bidez transmititzen dira (Irudia 3.106).

Kalkulatutako indar guztiak Cype programara sartu dira, bereziki, "CYPE 3D" modulura. Hortxe ere, lehenengo iterazio batean zur ijeztu kolatu homogeneoko GL-24h barra aukeratu da, 180x300 sekzioa duena, bereziki.

Aipatu beharra dago, honi 0'95eko gilbordura koefizientea eta 1eko alboko gilbordura koefizientea esleitu zaiola, "Taula 3.47 - Gilbordura luzeraren koefizientea,  $\beta_v$ "-n ondo azaltzen den bezala.

Karga guztiak sartu ondoren, egiaztatu behar da petral guztiek balio dutela azken muga egoera eta zerbitzu muga egoera faktoreen aldetik. Gainera, "comprobar elemento" tresnaren bidez, karga gehien hartuko duten petralak zein diren ikus daiteke. Horrez gain, kargak jasateko elementua zein sekziotik aurrera jasan dezakeen ere adierazten da, zein barraren erresistentzia, sortutako gezia eta suaren akzioa balidatzeko balio duen.

Taula 3.59 - Petral kritikoaren gaineko sekzioaren konprobazioak


Perfil	Peso	Resistencia	Flecha	Resistencia incendio
✘ GL-160x180	13.25	249.11 %	547.36 %	178.43 %
✘ GL-180x180	14.90	195.38 %	384.43 %	123.31 %
✘ GL-200x180	16.56	157.38 %	280.25 %	90.28 %
✘ GL-220x180	18.22	129.55 %	210.55 %	68.94 %
✘ GL-240x180	19.87	108.95 %	162.18 %	54.37 %
✘ GL-260x180	21.53	93.43 %	127.56 %	43.99 %
✘ GL-280x180	23.18	81.13 %	102.13 %	36.34 %
✔ GL-300x180	24.84	71.21 %	83.04 %	30.71 %
✔ GL-320x180	26.50	63.07 %	68.42 %	26.40 %
✔ GL-340x180	28.15	56.31 %	57.04 %	22.98 %
✔ GL-360x180	29.81	50.70 %	48.05 %	20.21 %
✔ GL-380x180	31.46	45.91 %	40.86 %	17.93 %
✔ GL-400x180	33.12	43.24 %	35.03 %	16.04 %

Sin revestimiento ignífugo

Significado de los iconos

- ✘ Perfil que no cumple alguna comprobación.
- ✔ Perfil que cumple todas las comprobaciones.

Bestalde, esfortzu-tresnaren bidez ikus daiteke petral kritikoaren gaineko sekzioaren konprobazioak zein puntutan esfortzu handienak egin behar dituen, eta arestian aipatutako egiaztapenekin kalkulu bat lor daiteke.



Irudia 3.112 - Petral kritikoaren gezi maximoa

Barra N94/N105

<b>Perfil: GL-300x180</b> <b>Material: Madera (GL24h)</b>							
	Nudos		Longitud (m)	Características mecánicas			
